

**ASTEAZKENA**

2020/12/16

8. urtea, 1.342. zenbakia

107.6 fm

[www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

## Beharra dutenei elkartasuna adieraziko die Laskorainek

Tolosako ikastolak ez du merkatu txikia antolatuko aurten, baina egungo egoera kontuan hartuta, lehengai bilketa egingo du 'Elkartasun ufada' lelopean, hiru elkarterekin batera // 2

**Pello Errota Bertsolari Sariketaren finala hilaren 27an izango da // 3**

**Tolosa CF-ko gimnastek bi txapelketa dituzte jomugan // 7**



LEYRE CARRASCO

## «Gure ibilbidea ondoen laburtzen duen lana da»

**XABIER ZEBERIO MUSIKARIA**


Tolosako Alos Quartet taldeak '20 urte zuzenean' diskoa argitaratu du, 20. urteurrena ospatzeko eskainitako lau kontzertuak baliatuz // 4-5

**gorriti | martínez**

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa

Tel: 943 650 192

[www.gorritimartinez.com](http://www.gorritimartinez.com)



PVC



ALUMINIOA



EGURRA

## Gabonetako ekitaldi berezia eta buruarinen tailerra egingo dituzte Adunan

Hilaren 30ean izango da lehena, 12 eta 17 urte arteko gazteentzat; urtarrilaren 4ean, tailerren parte hartu ahal izango da, familian

### Erredakzioa Aduna

Geroz eta egun gutxiago gertatzen dira Eguberrietarako. Eskualdeko herri askotan ari dira datozen asteetarako egitarau bereziak antolatzen, gehienetan etxeko txikientzat, eta betiere, egungo osasun egoeratik ezarritako neurriak errespetatuz.

Hori dela eta, bi ekitaldi antolatu ditu Adunako Udalak. Lehendabizikoa, hilaren 30ean egingo dute, 09:30etik 13:30era. Ekitaldi sorta berezia izango da, eta herriko 12 eta 17 urte arteko gazteek parte hartu ahal izango dute. Orientazio proba, tela ikastaroa, bizikleta ginkana eta beste hainbat sorpresa izango dira.

Ekimen honetan parte hartu nahi duten gazteek, abenduaren 21a baino lehen eman beharko dute izena [udala@aduna.eus](mailto:udala@aduna.eus) edota [kultura@aduna.eus](mailto:kultura@aduna.eus) helbideetara mezu bat idatzita. Informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, ondorengo telefonotara deitu daiteke: 943 692 571 edo 943 692 689.

Bestalde, urtarrilaren 4ean, eta 11:00etatik aurrera, buruarinak egiteko tailerra egingo dute, herriko pilotalekuan. 4 urtetik gorako haurrentzako prestatutako ekitaldia da eta familian parte hartu ahal izango dute. Ume bakoitzak bere buruarina diseinatu eta etxera eramateko aukera izango du.

Bi ordu inguruko iraupena izango du tailerrak eta beharrezkoa izango da haur bakoitza heldu batez lagunduta joatea. Edukiera mugatua da, ordea: 20-25 haurrek parte hartu ahal izango dute. Horretarako, aurrez eman beharko da izena udaletxean edo liburutegian, ostiral honetako 12:00ak baino lehen.

# Elkartasun ufada, behar handia izan dezaketen herritarrentzat

Aurten ez da egingo Laskorain ikastolak antolatutako merkatu txikia; hala ere, lehengaiak bilduko dituzte, gobernuz kanpoko hiru erakunderekin elkarlanean

### J. Artutxa Dorronsoro Tolosa

Koronabirusak eragindako larrialdi egoerak, erabat baldintzatu zuen ikasturte hasiera. Horrekin batera, bizi dugun egoerak eraldaketa beharra ekarri du baita ikastetxeetatik kanpo ere. Urte sasoi honetan, gainera, ohikoa izaten zen merkatu txikia egitea Tolosan. 25. aldiz zen ospatzekoa aurten, baina, Laskorain ikastolak ez antolatzea erabaki du.

Hala ere, egungo testuinguru honetan, elkartasuna adierazi nahi die behar handiena izan dezaketen herritarrei. Lehengai bilketa egingo dute kultur etxeko areto nagusian (merkatu txikia egiten zen leku berean), *Elkartasun ufada* lelopean. Egitasmoa eraldatuko duten arren, edizio guztietan izan duten helburu bera mantenduko dute.

Larunbatean ekingo diote bilketari, eta astebetez egongo dira bertan: 19an eta 26an, goizez (10:00-13:00) eta arratsaldez (17:00-19:00); 20an, 21ean, 22an eta 23an, arratsaldez (17:00-19:00) bakarrik. Aurrez, ikastetxeko bi eraikinetan egiten ari dira bilketa, bertako ikasle, irakasle eta familiei zuzendurikoa.

### GIZARTERATU BEHARRA

Ahalik eta bilketa handiena lortzeko asmoa dute ikastetxeko ordezkariak. Horretarako, hiru erakunderekin ariko dira elkarlanean aurten: Gipuzkoako Elikagaien Bankua, Gipuzkoako Caritas eta Zaporeak. Hiru erakundeetako ordezkariak elkartasuna lehengai bitartez adierazteko deia luzatu diete herritarrei: «Urte gogorra izaten ari da, eta egoera oso kritikoa da zenbait herritarrentzat».

Gipuzkoako Elikagaien Bankutik, olio, gailetak, fardelak, haur jakiak, azukrea, kakao hautsa eta kontserbak eskatzen dituzte. Erakunde honek, 18.000 pertsona elikatu zituen pasa den urtean; aurten, berriz, 22.000 herritarrei elikagaiak ematera heldu dira. «Jakitun gara ezohiko egoera batean bizi garela, baina erantzun bikaina izan dugu», aitortu du Juanjo Amonarriz ordezkariak. Beste bi erakundeek



Laskorain ikastolako eta Gobernuz Kanpoko Erakundeetako ordezkariak, atzo, ekimenaren aurkezpenean. JOSU ARTUTXA

egiten duten lana goraiatu du Amonarrizek. «Gure egitekoa errazagoa da, elikagaiak jaso eta banatzen ditugulako. Eurek, ordea, sekulako lanketa egiten dute».

Caritas erakundea da horietako bat. Datorren asteko bilketarako, toallak, galtzerdiak, musukoak eta gel hidroalkoholikoa eskatzen dituzte. Mota honetako ekimenak «esker onekoak» direla dio Jon Odriozola erakunde

### Hilaren 19an hasiko da bilketa, eta astebetez egongo da zabalik, 26ra bitarte, kultur etxeko areto nagusian

kideak. «Testuinguru berezi honetan ere, aurrera egiten laguntzen du. Beharrezkoa da zenbait herrialdetan bizi duten egoera gizarteratzea, askotan, gainera, oso gertu ditugulako». Ikasleen harrera ere eskertu nahi du. «Abentura batean sartu dira, baina gerora, norberaren ibilbidea markatzen dute ekintza hauek».

### TEA, HOTZAREN ARERIO

Bestalde, «errealitate ezberdinen betaurrekoak janzteko beharra» azpimarratu du Zaporeak elkarteko Irati Azkuek. Euren kasuan, arroz luzea, txitxirioak, di-

listak, babarrunak, makarroiak, atuna eta sardinak latan, oliba olio, espezieak, esne hautsa, barra energetikoak eta tea eskuratu nahi dituzte. Pobrezia egoeran dauden lurraldeetan bizi duten errealitateak egunero bizirauten duela gogorarazten du Azkuek. «Hitzarmen ugari, gainera, bertan behera geratu dira».

Aurten herritar askoren ahotan egon den Moriako errefuxiatuen kanpalekuko (Lesbos uhar-

### GKE ugariren lana ezagutu dute ikasleek, eta orain, keinu txiki askoren babes zabala izan nahi dute

tea, Grezia) egoera dakar gogora Azkuek. «Martxoan, 20.000 pertsona zeuden 3.000 lagunentzako edukiera zuen tokian. Orain errefuxiatu gutxiago badaude ere, (7.000 inguru), egoera ez da batere ona. Arazo lazarriak izaten ari dira, hezetasun handia dute, eta ia ez dute gorputza garbitzeko aukerarik. Elikagai beroren beharra dute, hotz handia egiten duelako. Beraz, tea oso balioetsua izan daiteke», gehitu du.

### HERRIAN ISLA IZATEKO NAHIA

Lehengai bilketaren aurretik, ordea, Laskoraingo maila ezberdi-

netako ikasleek, errealitate ezberdinak ezagutzeko aukera izan dute ikasgelan bertan. Askotariko GKE-ek haien proiektuen berri eman diete Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei: Tolosaldea Sahararekin elkarrea, Baltistan fundazioa, Zutani-Tolosa elkarte, Kellesensa, SOS Arrazakeriak, Zaporeak, Gizaldea Gipuzkoako Boluntariotza, Aita Mari eta Gipuzkoako Caritas.

Ikasgelan bertan ezagutu dute erakunde horien lana, baina orain, herrian isla izatea nahi dute. «Erakundeak babestea zein garrantzitsua den ikusi dugu. Orain, baina, jendea aktibatzea da helburua. Deia luzatu nahi diegu Tolosako nahiz eskualdeko herritar guztiei. Keinu txiki askoren babes zabala izan nahi dugulako», nabarmendu du Eneko Galartza ikasleak.

Bilketari ekin aurretik, denda, jatetxe eta salmenta puntuetan gonbidapen orriak eta informazioa banatzen aritu dira Batxilergoko zenbait ikasle. «Tokian tokiko bilketa kudeatzeko erraztasunak eskaini nahi dizkiogu herritar orori, boluntarioak ekarpen horiek jasotzera gerturatuz», dio Itxaropena Urkiola Batxilergoko koordinatzaileak.

### IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi [ataria@ataria.eus](mailto:ataria@ataria.eus) helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak [iragarkilaburrak.eus-en](http://iragarkilaburrak.eus-en)

# Hilaren 27an izango da Pello Errotako finala

Bertsolari txapelketako sarrerak telefonoz erreserbatu daitezke edo Asteasun, Zizurkilen edo Villabonan erosi



lazko irabazleen taldeko argazkia. ATARIA

## Erredakzioa Asteasu

Azaroaren leian egitekoa zen aurtengo Pello Errota Bertsolari Sariketaren finala, Asteasuko frontoian. Gobernuak ezarritako alarma egoera zela eta, antolatzaileek finala bertan behera utzi behar izan zuten, ordea. Orain, Gobernuak legeak malgutu dituzenez, finala abenduaren 27an egingo dela iragarri dute Harituz Bertsosale Taldeak eta Asteasuko Udalak.

Finala 17:30ean hasiko da eta sarrerak eskuragarri daude jada, Asteasuko Patxine eta Iturri Ondo tabernetan, Zizurkilgo Iriarte jatetxean eta Villabonako Amasa kafetegian. Era berean, 629 834 710 telefonora deituta edo *whatsapp* mezu bat bidalita erreserbatu daitezke. Horrela eginez gero, erosketa Bizum bidez ordaindu beharko da. Finala

egunean, 16:30ean zabalduko dute txarteldegia, baina antolatzaileek bertsozaleei sarrerak aurrez erosteko deia egin diete.

## 17:00ETARA KO JOATEKO DEIA

Frontoiko ateak 17:00etan zabalduko dituzte, jende pilaketak saihestu eta aukien banaketa segurtasun neurri guztiak bermatuz egin ahal izan dezaten antolatzaileek. «Bertsosaleei denborarekin ibiltzeko deia egin nahi diegu, publiko guztia 17:30erako bere lekuan egon dadin eta finala puntual hasi ahal izateko», esan dute.

Amaia Iturriotz, Erika Lagoma, Jon Martin, Iñigo Izagirre, Izarne Zelaia eta Unai Mendizabal izango dira finalean kantuan ariko diren sei bertsolariak, aurkezle lanetan, berriz, Maddi Labaka ariko da.

# Asaldura psikologikoa dut

## Iritzia Inmakulada Lanbide Heziketa ikastola

Osasun Dokumentazioko 2. mailako talde bat

**E**donork pasa duen edo pasatzen ari den bizi-tzako etapa da nerabearoa, hain polit zein eroa. Ez da soilik haurtzarotik helduarora igarotzea, prozesu luzea baizik, prozesu biopsikosoial bat, hain justu.

Helduen antzera, nerabeek ere osasun mentaleko asaldurak izan ditzakete, esaterako, estresa. Estresak, hormonen sistemaren eragina du, garapen fisikoa geldituzeraino iritsi liteke hormonen jarioa etetearen ondorioz. Esperimentatzeko gogoak ere aldi honetan hasten dira. Parrandara atera, alkohola edan, tabakoa probatu, eta abar. Ekin-tza horiek luzera ekar ditzaketen ondorioak burutik pasa ere egin gabe, asaldura psikiatrikoak azalerrak esaterako.

Bizi garen gizartean osasun mentala bigarren maila batean ikusi ohi dela esango lukete, garrantzi gehiago eman ez osasun fisikoari. Baina egungo gizarteak ez dakiena da osasun fisiko on bat edukitzeko, beharrezkoa dela osasun mentala.

Gaixotasun mentalak gai tabuak dira gizartean, elkarrizketa isileko gaiak. Inguruko norbaitek horrelako gaixotasun bat pairatzen badu, ez dugu beste gaixotasun bat bezala ikusten. Zoritxarrez, noizean behin, *eroa* hitzarekin kalifikatuz; estigma kalifikatzaileak dira, estigma faltsuak.

Esan beharra dago ere, urteak joan ahala osasun mentaleko asaldurak apurka-apurka normalizatzen joan direla, baina

oraindik ere lan handia dago egiteko, ikerketatik hasiz. Nahikoa ez balitz bezala, pandemia berri batek estali gintuen. Hortik aurrera, ez dago beste gaixotasunik munduan. Badirudi, jadanik sendatu direla eskizofreniko, deprimitu eta anorexia pairatzen duten gaixo guztiak, baina zoritxarrez ez da horrela.

Izan ere, COVID-19 birusak ez du osasun fisikoan soilik eragin, osasun mentalean inpaktu handia izan du, izaten ari da eta izango du. Antzietate, depresio eta loaren asaldura izan dira gehien garatzen joan diren sintomak.

Datu horiek kontuan izanda, Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola (TILI) eta EASO politeknikoko parte diren irakasle eta ikasleak lanean hasi dira arazolari aurre egiteko. Elkarlanean, COVID-19ak nerabeen osasun mentalean izan duen eragina ikertzeaz gain, nerabeen osasun mentala hobetu zein mantentzeko tailerrak egin dira. Horrela, lehenengo pausoak ematen hasiak dira. Duela hilabete batzuk, TILiko Osasun Dokumentazioko bigarren mailako ikasleek Tolosaldeko ikastetxeetan osasun mentala neurtzen duten galde-tegiak zabaldu zituzten eta emaitzak esku artean dituzte jada. Ondorio oso interesgarriak ateratzeko aukera izan dute, hurrenez hurren, 496 parte hartzaileetatik 99k COVID-19az kutsatuta egon den senideren bat izan dute gertu eta 22k lehenengo pertsonan bizitu dute birusa.

Depresio eta antzietate sintomei dagokienez, parte hartzaileen %34,5ek sintomaren bat eduki dutela esan dute. Nagusiki, nekatuta zein energia gutxirekin sentitzen direla eta baita kezka handia sentitu dutela ere. Galde-tegi horien bitartez suizidio arriskua ere neurtu da eta emai-

tzek partaideen %5,6ak suizidio arrisku den zeinuren bat duela ikusi da, portzentaia txikia dirudien arren, inpaktu handia sortu du ikertzaileen artean. Aipatzen izanik ere 51 ikasleek ez dutela galdera hori erantzun, eta horrek gaiaren ezkutatzeko jarrera azalerratu du.

Droga eta *online* jokoen kontsumoari dagokienez, %12,1ek sustantziaren baten kontsumoa areagotu duela adierazi du. Gehienbat alkohola, marihuana eta haxixa. Azkenik %9,48ak laguntza psikologikoaren beharra sumatu du.

Ikerketak bi urteko iraupena izango duela aurreikusten da. Nahi baina luzeago joango den arren, proiektua ematen ari den lehen aleekin gustura daude eta indar handia ematen die lanean buru-belarri jarraitzeko. TILIko Osasun Dokumentazio 2. mailako ikasle eta irakasleek gain beste zikloetakoak ere lanean ari dira; Gizarte Integrazioko ikasleek, suizidioa saihesteko tailerrak sortuko dituzte; arretakoek antzietatearen prebentziorako tailerrak landuko dituzte; eta azkenik, erizaintzakoek loaren asaldura hobetzeko edo honen aurrean zer egin jakiteko tailerrak. Tolosaldeko 13-19 urte bitarteko nerabeei zuzendutako tailerrak izango dira.

Ikasleak gustura daude lortutako emaitzekin, ikerketa gauzatu bitartean osasun mentaleko asaldura asko ezagutu dituzte eta are garrantzitsuagoa dena, horien aurrean nola jokatu ikasi dute. Gizarteak duen armarik indartsuena elkartasuna dela ohartuz, elkar lagundu eta ulertuz.

Ikerketa eta aurrerapen gehiagoren zain geratzen dira eta etorkizun batean, baliogarria izango denaren itxaropenarekin.

**zozketak**

**Atarikideentzat bi sarrera dauzkagu**



**Gure zirkua bi sarrera.**  
Ostirala, abenduak 28, 12:00.  
Tolosa, San Esteban auzoa.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)

**zozketak**

**Atarikideentzat saski bat daukagu**



Benta - aldea ardotegiaren eskutik Heras Cordón ardo beltzeko 3 botilako kaxa, Soronea denda ekologikoan gastatzeko 40eko opari txekia eta Mahala produktuez osaturiko saskia

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus)



# «Diskoak gure taldea zer den erakusten du»

## XABIER ZEBERIO MUSIKARIA

20. urtemugaren harira, Alos Quartet taldeak eskainitako lau kontzertu bereziak baliatu ditu kaleratu berri duten '20 urte zuzenean' diskoa osatzeko



ATARIA

### Leyre Carrasco Tolosa

Alos Quartet taldeak bere 20. urteurrenaren harira eskainitako kontzertu berezietan grabatutako 20 urte zuzenean diskoa, taldearen bosgarrena, kalean da. Lau emanalditan grabatutako hemezortzi konposizioekin osatu dute lana. Eta abestietan lagun izan zituzten artisten zerrenda ere nabarmendu dute. Xabier Zeberio (Tolosa, 1978), Alos Quartet laukoteko kideak lan berriaren nondik norakoak azaltzarekin batera, 20 urteko ibilbidea gogoratu du.

#### Nolakoak izan dira taula gainean igaro dituzuen 20 urteak?

Egia esan, azkar pasa dira. Atzo hasi ginela dirudi. Bidean gauza asko egiteko aukera eta zortea izan dugu; esperientzia asko eta desberdinak bizitzeko aukera, jende asko ezagutzeko zortea eta proiektu askotan murgiltzeko aukera eman digu gure ibilbideak. Disko honekin gure 20. urteurrena ospatzen ari gara, lau kontzertu berezi egin baikenituen, eta kontzertu hauetan grabatu genuen zuzeneko diskoa. 20 urte hauek laburbiltzen dituen diskoa dela esan daiteke.

#### Nolatan sortuzen zuzeneko disko bat egiteko ideia?

Egin dugun lehenabiziko zuzeneko diskoa da. Orain arte egingako lan guztiak estudioan grabatutakoak izan dira, estandar-ragoak. Lehenengo kontzertua duela urtebete egin genuen Gasteizko Principal antzokian Aitzina Folk jaiaren barruan, eta bertan gonbidatu pila bat izan genituen gurekin. Gure teknikariak Jean Fokasek kontzertu gehienak grabatzen dizkigu. Kontzertu hura multipistan grabatu zuen, eta ondo grabatuta gainera; kontzertuaren ondoren grabazioa entzuteko bidali zigun eta sorpresa izan zen. Emaitza bikaina zela konturatu ginen, eta orduan ikusi genuen beste hiru kontzertuak grabatu eta horrekin disko bat argitaratzeko aukera egon zitekeela. Emaitzarekin oso pozik gaude, pentsatu gabeko disko bat izan delako, baina badu besteek ez duten zuzeneko

gauza berezi hori. Kontzertu horietan bizi izan genituen momentu berezi eta polit horiek nabaritzen dira diskoan.

#### 20 urteko ibilbide luzea egin duzue. Diskoa osatu duten abestiak aukeratzeko zaila egin al zaizue?

Bai, aukeraketa hori egitea ez zen erraza izan, maite ditugun doinu asko bidean geratu direlako. Hala ere, aukeratu hori egiteak merezi izan duela uste dut, diskoan agertzen diren abestiak bertan egotea merezi dutelako daudelako. Horiek dira abesti *potenteenak* eta gure bidea ondoen laburtzen dutenak.

#### 'Ezpatadantza' izan zen da berriaren aurrerapen kantua.

#### Abesti hori al da 20 urteko ibilbidea ondoen definitzen duena?

Ez dakit ondoen definitzen duen abestia izango den, baina urrutien iritsi dena bai; ezagunena, edo zabalduena izan dena, dudarik gabe. Duela 10 urte grabatu genuen *Hamar tanta* diskoan, eta askotan ez dakizu zergatik baina doinu batzuk barrura iristen zaizkizu eta *Ezpatadantza*-k bide oso emankorra izan du. Egia esan, asken momentuan erabaki genuen diskoa hau *Ezpatadantza*-rekin irekitzea, baina disko bat nola hasi jakitea ez da erraza. Kantu hau hainbeste aldiz jota eta hainbeste aldiz entzunda, asko maite dugun arren, pixka bat aspertuta ere bagaude. Hala ere, askotan ez gara gai izaten kanpotik nola jasotzen den ikusteko; dena den, uste dut asmatu dugula. Oso kantu esanguratsua da guretzat, alai, indartsua eta zerbait berezia duena. Ondo erakusten du Alos Quartet zer den.

#### Zuk abestiren bat aukeratu beharko bazenu, zein izango litzateke? Zergatik?

Zaila da. Kantu bakoitzak momentu eta egoera batera eramaten zaitu. Kontzertuak oso bereziak izan dira, gehienbat gonbidatu guztien artean sortu den kimikarengatik, baita publikoarekin sortutako giroagatik ere. Gu hari laukote bat gara, ez gara pop talde famatu *meinstring* bat, baina guretzat oso polita izan da





hainbeste jende elkartzea kontzertuetan; Victoria Eugenia edo Leidor bat leporaino beteta egoitea eta publikoaren aldetik maitasun hori sentitzea. Kantu bat aukeratu beharko banu, nik badut bat oso maitea, Gasteizen Josu Zabalarekin eta Garirekin jo genuen Hertzainak taldearen *Aitormena*. Oso momentu errepikaezina izan zen. Betidanik maite izan dudana abestia da, bere garaian laukotearekin grabatu zena, eta aukera hori izatea beraien herrian, Gasteizko Principal Antzokian oso

**Diskoko abestiak dira 'potenteenak eta gure bidea ondoen erakusten dutenak**

**Ospatzeko moduakoa da, 20 urteko ibilbidea gurea bezalako talde batentzat asko delako**

**Ez dago gauza politagorik jendearen maitasuna sentitzea baino**



ATARIA

berezia da. Bitxikeri moduan, horrekin geratuko nintzateke. **Disko berriak Alos Quarteten zuzenekoetako esentzia gordetzen duela azpimarratu duzue. Baina, aldaketa txiki bat egin duzuela ere aipatu duzue.**

Gauzak bere garaian grabatzen direnean gerora bertsio bat izaten dute, eta urteen poderioz zuzenean jotzen dituzunean kantuak aldatzen joaten dira. Beren bidea eta beren aldaketa naturala egiten dute. Disko hau bere zuzeneko erakusgarria dela uste dut. Adibidez, diskoa ixten duen azken kantua *A Ragtime* izeneko jendeak asko eskatzen diguna da, eta gure lehen diskoan grabatu genuen, duela 16 edo 17 urte. Pentsa, geroztik zenbat kontzertutan jo dugun eta zenbat aldatu den abesti hori. Hemen berriro ere gorde nahi izan dugu kantu hori. Badaude, era berean, Oreka TX taldearekin egin ditugun moldaketa berriak, Oskorri taldearen bi kanturen bertsio berriak edo inoiz grabatu ez ditugun doinu berriak. Denetarik dago. Taldearen ikuspuntu nahiko zabala eman diogu.

**Euskal Herriko lau hiritan eskainitako kontzertuetan grabatutako abestiak dira diskoan bildu dituzuenak, tartean, Tolosan. Tolosakoak ba al du berezitasunik?**

Tolosako doinu dezente daude diskoan. Kontzertu oso berezia izan zen. Ni tolosarra izanda, Tolosan bertan jotzea beti da berezia, baina askotan esaten da inor ez dela profeta bere herrian, eta kasu honetan duela urtebete, 2020ko urtarrilean, bertan jo genuen eta izugarri izan zen. Leidor bezalako areto bat, ia 800 pertsonarekin, leporaino beteta ikustea, eta jendea kalean sarerrarik gabe, hori izugarritzko oparia izan zen guretzat. Azkenean, ez dago gauza politagorik jendearen maitasun hori sentitzea baino; oso kimika berezia sortu zen Tolosako kontzertuan, bai gonbidatuekin, bai eta publikoarekin ere. Horregatik, Tolosako emeraldiko doinu dezente daude diskoan.

**Urte berezia borobiltzeko lana da, beraz, argitaratu berri duzuen**

Urte berezia, urte arraroa... Batik bat gure 20 urte hauek borobiltzeko lana dela esango nuke. Ospatu egin nahi genuen, eta ospatzeko moduko dela uste dut, 20 urteko ibilbidea gu bezalako talde batentzat asko delako. Disko honek oso ondo borobiltzen eta erakusten du gure orain arteko ibilbidea. Izan ere, bertan, gure disko guztietako kantuak daude, bai berriak, bai eta zaharren bertsioak ere. Magia hori gordetzen du diskoak, publikoaren berota-

sunarekin batera. Estudioko beste edozein disko baino hobeto erakusten du disko honek zer den gure taldea.

**Pandemiak gogor jo du kultura. Alos Quartet taldearen kasuan, nolako eragina izan du?**

Guztioi bezala. Disko hau grabatu eta kontzertu batzuk egin ostean, berehala harrapatu gintuen. Gainera, azken bira honetako azken kontzertua Bilbon egitekoak ginen Loraldia jaialdiaren barruan, eta justu aste horretan konfinamendua hasi zen, beraz, plan guztiak atzeratu behar izan genituen. Diskoko laugarren eta azken kontzertu hau zortez urrian egiteko aukera izan dugu. Bitarte horretan, diskoa grabatzeko, forma emateko eta etxeko lanak egiteko aprobeitatu

dugu. Zorionez, zorte onekoak gara lana ez zaigulako falta; kontzertuak egiten jarraitzen dugu eta grabaketa dezentetan murgilduta gaude, pelikulak eta soinu bandak, esaterako. Hemenetik urte amaierara agenda bai mugitu zaigula dezente. Oso pozik gaude, disko berria esku artean dugulako, eta datorren urteari begira ere hainbat kontzertu baditugulako hitzartuta. Ez gaude kezatzeko.

**Etorkizunera begira, zer proiektu ditu esku artean Alos-ek? Nola ikusten duzu taldea?**

Disko honi ahalik eta oihartzun handiena ematea, eta ahalik eta etxe gehienetara iristea nahi dugu. Kontzertuekin jarraitzeko asmoa ere badugu. Aste honetan

Berrizen izango gara, eta laster Irun, Sopela eta beste hainbat lekutan ere erakutsiko dugu gure musika. Musika eta dantza, Kimuak dantza konpainiako dantzariarekin eta Amaia Elizaran dantzariarekin batera ariko gare-lako. Formatu handian gabiltza, ez gonbidatu handiekin baina bai sorta batekin. Datorren urteari begira, gure asmoa kontzertu horiekin eta ikuskizun honekin jarraitzea, eta hortik aurrera ikusiko dugu. Erritmoa pixka bat lasaituko dugu. Izan ere, azken hilabeteetan nahikoa lan izan dugu. Esan moduan, filmetako soinu bandekin segiko dugu; azken *Akelarre* filmerako grabatu genuen duela hilabete batzuk, eta beste proiektu batzuetan ere bagabiltza. Oso gustura gaude.



**harpidedun izateak badu saria zozketa**

**1 BILBOKO ARTE EDERRETAKO MUSEOA**

Bi lagunentzako bina sarrera

[museobilbao.com/eu/BILBO](http://museobilbao.com/eu/BILBO)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



**2 2021. URTEKO EUSKARAZKO AGENDA BI**

Eskure Euskal Papergintza euskal herrian diseinatuak eta inprimatuak.

[eskure.eus](http://eskure.eus)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus) webgunean



# Elkarlanak eta sormenak bat egin dute Taupacka ekimenean

Artisautza eta kulturaren arloan lan egiten duten Villabonako hiru saltokik eskaintza bateratua sortu dute, elkarren indarrak batuz



Kaori faktoriako, Amlu studioko eta Basajaun liburu dendako arduradunek bultzatu dute Taupacka. JON ANDER ARTOLA

**Jon Miranda** Amasa-Villabona

Villabonako Kale Nagusian kokatuta dauden hiru proiektuk bat egin dute Taupacka izeneko ekimenean. Kaori faktoriako, Amlu studioko eta Basajaun liburu dendako produktuak sorta batean eskaintzen zaizkio bezeroari. Egitasmoaren bultzatzaileek azaldu dutenez kutxa hauetan euren produktuak baino zerbait gehiago topatu daiteke, «elkarlana eta sormenaren arteko besarkada».

Momentu hauetan, inoiz baino gehiago, kontzientziaz oparitzeko beharraz hitz egin du Aitziber Cenzano Basajaun liburu dendako arduradunak: «Egia da gu saltzeko gaudela, baina iruditzen zaigu azken boladan jendea burugabe ari dela erosten. Kontsumo arduratsuen aldeko deia egin nahi diegu bezeroei». Izan ere, merkatari txikiak kezka dute

azken aldian plataforma handiek izan duten gorakadarekin. «Badakigu zeinen eroso den erosketak horrelako plataforma handietan egitea baina bezeroak banaketa enpresa handi horietan ez du topatuko dendari txikiok eskaintzen duguna. Guk bezero bakoitzarekin denbora pasatzen dugu, aholkularitza ematen diegu eta momentuko arreta da eskaintzen dieguna, aurrez aurre. Jendeak gauza horiek baloratu egin behar dituela uste dut», esan du Cenzanok.

Bat dator Kaori faktoriako Lurgi Zalakain eta baikor begiratu nahi dio etorkizunari: «Nik uste bizi dugun egoera honetan jendea hasi dela gauzak beste leku batetik begiratzen. Bezeroak ikusten du produktu baten atzean pertsona bat edo lan talde bat dagoela eta balore batzuk ezkutatzeko direla». Euren txikitik, egiten duten lanari «balorea emate-

az» aritu da Amets Zalakain Amlu studio bitxitegiko arduraduna. «Ezin gara munstro handi horiei begira egon. Ahal den ondoen aritu behar dugu, egiten dugun horretan sinetsi eta gurean jarri behar dugu energia guztia».

## SORMEN LANAK SORTA BATEAN

«Txikiak gara eta elkarren beharra dugu», gehitu du Cenzanok: «Taupacka izeneko sorta hauen bitartez, elkarren taupadak indartu nahi ditugu, elkarri lagundu nahi diogu, pentsatzen dugulako elkarrekin indartsuagoak garela».

Sorta bakoitzean saltoki bakoitzak bere ekarpena egiten du. Basajaun liburu dendak, adibidez, liburuez gain, diskoak eta jokoak jartzen ditu. «Saiatzen gara euskarazko sorkuntzari tokia egiten. Liburu dendan beti ahalegintzen gara aisia eta entretenimendua ulertzeko beste ereduak lekua egi-

ten eta horrek izango du isla Taupackan». Duela hilabete batzuk abiatu zuen Amets Zalakainek Amlu studio proiektua eta bere sorkuntzak salgai izaten ditu Kaori faktorian, Lasarteko Kool studioan eta Tolosako Zuzeun. «Oraingo belarritakoak sortu ditugu eta horiek jarriko ditugu sorta hauetarako ere». Kaorik, bere aldetik, osagarriak ekarri ditu Taupackara.

Hiru proiektuen webguneetan eskuratu daitezke sortak eta baita Kaori faktorian edo Basajaun liburu dendan ere, hurrenez hurren, Villabonako Kale Nagusiko 26. eta 29. zenbakietan. Orain arte jendeak erakutsi duen harrearekin «oso pozik» daude. «Eskulana eta kultura eskutik heldu eta etxeetaraino eramateko prest gaude. Elkarlana eta sormenaren arteko besarkada da Taupacka, pausu bat mundu hobe baterantz».

## AZOKA IZAN ZEN, ETA ORAIN ESKUALDEAN DA!

Durango Azoka amaitu ondoren ere euskal kultura kontsumitzen jarraitzeko deia egin die herritarrei Gerediaga elkarteak. Hain zuzen, jarraipen hori irudikatzen atxikimendu kanpaina antolatuta dute Euskal Herriko 141 liburu dendarekin.

Urtarrilaren 8ra bitartean Durango Azokaren produktuek salgai jarraitzen dute denda horietan. Araban 13 liburu denda bildu ditu kanpainak, Bizkaian 59, Gipuzkoan 49, Lapurdin bat, eta Nafarroan 19. Tolosaldeari dagokionez, Villabonako Basajaun, Asteasuko Mattin, Tolosako Babel eta Tolosako Elkar liburu dendek bat egin dute ekimenearekin eta bertan erosi ahal izango dira azokako produktuak.

Hilberriak eta urteurrenak

**ataria**n jarrita  
Urola Kostako  
eta Goierriko  
Hitzetan DOAN

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

### Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€  
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

# Tolosa CF-ko gimnastak lehiatzen hasteko irrikaz daude



Tolosa CF-ko lehen mailako gimnastak, klubak Usabalen erabiltzen duen pabilioian. I.G.L.

Klubeko talde nagusiak, lehen mailan aritzen denak, bi txapelketa ditu urtarrilean, eta horretarako prestatzen ari dira, maila horretan jarraitzeko helburua baitute

**Imanol Garcia Landa** Tolosa

Martxoko geldialditik ez dute txapelketarik egin Tolosa CF-ko gimnastek. Oraingoan, beraz, gimnastika erritmikoa erabat geldirik dago lehiaketek dagokionez. Hala ere, klubeko talde nagusia, lehen mailan dagoena, gogoz entrenatzen ari da txapelketak iristen direnerako. «Ez da erraza egoera honetan lana aurrera ateratzea», azaldu du Nerea Otaegi entrenatzaileak. «Baina, beraien gogoia eta ilusioa lehen mailan jardutea da. Kontuan izan behar da gimnasta askoren ametsa dela beraiek lortu dutena, eta dena emateko prest dauden esperientziak gozatzeko. Horregatik buru belarri ari dira lanean».

Egungo egoera kontuan hartuta, hurrengo lehiaketa noiz izango den zehaztea ez da oso ziurra. Gaur egun duten helburua urtarrean aurreikusita dauden bi txapelketetara joatea da. Espainiako Kopa urtarrilaren 16 eta 17an izango da eta Espainiako Txapelketa urtarrilaren 23 eta 24an. Valentzian egingo dira, Colonial Sport zentroan. «Egungo egoerarekin ezin da jakin txa-

pelketa horiek egingo diren eta bertan izateko aukera izango dugun», esan du Otaegik. «Hala ere, helburu bezala gimnastek bertan beren lana erakutsi eta gozatzeko da». Hiru uztai eta bi mazerkin egiten dituzte lehiaketako ariketak.

Lehen taldean zazpi gimnasta daude: Aitane Goikoetxea, Ane Alustiza, Irene Arbeloa, Onintza Sukia, Mara Herrera, Ismene Agirre eta June Azpiazu, eta 16 urte inguru dituzte. Tolosa CF da gimnastika erritmikoan lehen mailako taldea duen Gipuzkoako klub bakarra. Estatuan dagoen maila gorena da lehen maila, eta bertan izateko, Espainiako Txapelketan lehen hiru postuetan sailkatu behar da. Tolosa CF-k duela bi urte lortu zuen senior mailan ari zen taldearekin, eta ia junior mailan ari zirenekin lortu zuten. Beraz, bi talde ezberdinekin eskuratu du lorpen hori, baina klub bakoitzetik talde bakarra egon daiteke lehen mailan. Lehen mailara igo daitekeen moduan, jaitsi ere egin daiteke. Hamabi eta hemezortzi talde artean izaten dira maila horretan, eta azken lauak sailkatzen direnak jaitsi egiten dira.

Lehen mailako gimnastak kirolari erdi-profesionalak dira eta hauekin kiroldegian entrenatzeko aukera izan dute, Usabalgo industrigunean duten pabilioiaz gain. «Maila honetan lan handia egin behar da, eta horretarako beren beharra asetzen duten lekuak behar dituzte», zehaztu du Otaegik. Talde txikia izan arren, distantzia mantentzeko egoera guztietan musukoa jantzita daramatela azaldu dute klubetik. «Gainera, gel hidroalkoholikoa erabiltzen da eta norberak bere materiala erabili eta desinfektatu behar du amaieran. Horrez gain, lokala aireztatzen da entrenamendu amaieran eta bitartean makina batekin inguru guztia desinfektatzen da: tapiza, aulkiak, paretak, aldatzeko lekua...», gaineratu du entrenatzaileak.

Lehen mailako taldeaz gain, Tolosa CF kluba adin guztietako gimnastaz osatuta dago, 5 eta 25 urte bitarte, hain zuzen ere. Beste talde guztiekin egon daitezkeen maila guztietan parte hartzen dute, eskola mailan A-B eta Uda-berri mailan, eta estatu mailan oinarrizko eta absolutuko mailatan.



## ADINEKOEI OMENALDIA

Carlos Peña igerilariak abenduaren 12an proiektu berezi bat egin zuen: spinning-eko bizikleta batean zortzi orduz aritu zen pedalei emanez, Ibarrako bere etxeko balkoian. Orain arte egin dituen egitasmoekin alderatuta ezberdina da; izan ere, COVID-19a dela eta bizi den egungo egoerarengatik, «ezinezkoa izan da uretan egitea, horrelako erronkak egiten direnean elkartu ohi den jende kopuruarengatik», azaldu du. Egitasmoa «gure adinekoen omenez» egin du Peñak, «pandemiarengatik bereziki sufritu eta sufritzen ari direnen omenez». ATARIA



## IRABAZLE ZESTA PUNTAN

Espainiako Pilota Federazioak (FEPelota) antolatutako Espainiako Kopak bere ibilbide lehiakorrean jarraitzen du; 36 metroko frontoia eta trinketa protagonista izan ziren lehen bi emandien ondoren, 54 metroko pilotalekuaren txanda izan zen. Txapelketa historikoa, izan ere, lehen aldian izan zen Noingo pilotalekuan (Nafarroa) emakumezkoen zesta-puntako txapelketa bat jokatu zela. Naroa Merino tolosarrak (Donostia Jai Alai) eta Maialen Aldazabalek (Berriatua) osatutako bikoteak irabazi zuen. ATARIA





**ASTEAZKENA, 2020KO ABENDUAK 16**  
**Argitaratzailea:** Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM  
**Lege Gordailua:** SS-1323-2013  
**Koordinatzailea:** Rebeca Calvo Gonzalez  
**Kudeatzailea:** Iban Urdapilleta Alkizalete  
**Egoitza:** San Esteban, 20, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95.  
**E-posta:** ataria@ataria.eus  
**Publizitatea:** 661678 818. publi@ataria.eus

**Tolosa:** 687 410 082. tolosa@ataria.eus  
**Villabona-Aiztondo:** 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@ataria.eus  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@ataria.eus  
**Kirolak:** 673 06 1132. kirolak@ataria.eus  
**Bezero arreta zerbitzua:** 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA  
107.6 FM

**Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:**  
 Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baiarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orensa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

**Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:**



# ASTEAZKENA 16

## AGENDA

### Deialdiak

**Altzo.** Arrastoan dokumentala eta solasaldia, Josu Iztueta eta Iker Iriar-terekin, 19:00etan, Batzarremuñon.  
**Amezketak.** II. Errepublika, Gerra Zibila eta Frankismoko datuak jasotzeko informazio bulegoakultur etxean, 10:00etatik 12:00etara.  
**Tolosaldea.** Finantza adituak ez diren zuzendarientzako finantzaketak Lehiberrin, 09:00etan, online.

### Erakusketak

**Tolosa.** EmPoderArte eta Tolosako Berdintasun sailak antolatutako *Sorginak!* erakusketa, Aranburun.  
**Tolosa.** Tytti Thusberg-en *Karelia Moda jasagarriaren bilduma* erakusketa Aranburu jauregian.

## 28 KANALA

**11:00.** Martaren eskulanak  
**11:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**12:00.** Ander Zulaika batera jolea  
**17:00.** 1, 2, 3 hemen da Miru!  
**17:30.** Gaurkoan Tolosaldeko  
**22:00.** Urrutiajunbe (Monika Arratibel eta Eider Arruti)

## ATARIA IRRATIA

**09:00. Pasahitza.** Magazina: Iker Ibarluzearekin eguraldi iragarpena, eskualdeko berriak eta kolaboratzaileen tartak.  
**15:00. Desafioa.** Herri kirolak.  
**16:00. Zebrabidea.** Arroza sareko irratiaren artean eginiko magazina.  
**20:00. (H)ari naizela.** Bertsolaritza.  
**21:00. Lokatzetan.** Umore saioa.

## FARMAZIAK

### Gaur

**VILLABONA. Egunekoa.** Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. 943 69 1130.

**TOLOSA. Gaukoa.** Lourdes Azpiroz Galarza. Laramendi kalea, 6. 943 67 5118.

## EGURALDIA

### IKER IBARLUZEA

**Gaur.** Zerua zikinago agertuko zaigu, baina giroak lasaia izaten jarraituko du gaur ere. Erdi eta goi-mailako hodei dezente agertuko da zeruan goizean goizetik. Hala ere, ez dute bestelako ondorio izango. Arratsaldean, berri, hodeitza trinkotzen joango da, azken orduetan zerua estalirik geratuko delarik. Euri pixka bat egitea ere aurreikusten da. Haizeak hegotik joko du eta tenperatura maximoak 13-15 gradu artean joko du goia.

**Bihar.** Eguraldi atsegina izango dugu gaurkoan. Goizaldean hodeitza trinkoagoa izango da, baina ez du euririk egingo eta giro lasaia izango dugu. Arratsaldean hodeitza saretu eta giro eguzkitsua izango dugu. Haizeak hegotik joko du eta tenperatura maximoa 13 eta 15 gradu artean kokatuko da.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Mugi Tolosa egitasmoko irudiekin osatutako egutegia argitaratu du Tolosako Udalak laugarren urtez, eta banaketa ari dira egiten

# Irudi onenekin egutegia



Zerkausian ari dira egutegia banatzen. Irudian, atzo, herritarrek Mugi egutegia jasotzen. JOSU ARTUTXA

## Erredakzioa Tolosa

Laugarren urtea da Tolosako Udalak Mugi Tolosa egitasmoko irteeren argazkiekin osatutako egutegia argitaratu eta parte hartzaileen artean banatzen duela. Azken egunetan egin moduan, gaur eta etzi Zerkausian egongo dira banatzen, 10:00etatik 12:00etara.

Udal langileekin batera, Gurtze Gorriko boluntarioak, Naguilan, Iturriza, Harizpe eta Beti Gazte erretirodunen taldeetako ordezkariak eta Ilarki elkarteak kideak ari dira banaketan. Guztira, 500 egutegi emango dituzte aurten, horietatik 200 inguru

egitasmooan parte hartzen duten eragileen artean. Bestela, Udate herritarren zerbitzuan, Eko saltokian, Tolosako anbulatorioan edota Usabal kiroldegian ere eskuratu ahalko da egutegia, abenduaren 21etik aurrera.

«Gizarte ekimen parte hartzaile hau gizarteratzea da helburua, bertan parte hartzen dutenen poza ikusaraziz, belaunaldien arteko harremanen garrantzia nabarmenduz eta jarduera fisikoak ezberdinen arteko harremanak sendotzeko duen ahalmena balioan jarritz», azaldu dute udaletik. Mugi Tolosa egitasmooaren bidez egoera baztertzailan daudenei buelta ematea bultzatu nahi du udalak, are

gehiago, aurten, osasun egoera kontuan izanda. «Gero eta adinoko gehiago dago bakarrik bizi dena, eta jarduera fisikorik egiten ez duena. Horregatik, gizarteari ezagutarazi nahi zaio herritar hauek laguntza behar dutela, elkartzeko gune bat behar dutela, maitatuak sentitu nahi dutela». Horretan guztian, belaunaldien arteko harremanek duten garrantzian egiten du bereziki azpimarra Tolosako Udalak.

Aurten, baina, ezin izan da Mugi Tolosa egitasmorik egin, pandemiaren eraginez, baina udalak Adinkide elkartearekin elkarlanean, adinoko pertsonen bakardadeari aurre egiteko programa ere jarri du martxan.

2021eko mahai egutegiak eskuragarri.  
 Pasa zaitetzte hauen bila.  
 San Esteban, 20 Tolosa 20400

ORIA BEILATOKIA TANATORIO

Usabal Ind., 12. 20400 Tolosa  
 943 69 75 79  
 www.funerariaoria.com